

## ALBISTEEN KALITATEA: 'EUSKADI IRRATIA', 'ETB1' ETA 'EUSKALDUNON EGUNKARIA' / 'BERRIA' (RESEARCH ON BASQUE MEDIA'S NEWS QUALITY)

**Tesiaren egilea:** Maria González Gorosarri

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Kazetaritza Saila

**Tesi-zuzendaria:** Txema Ramirez de la Piscina

**Tesiaren laburpena:**

Tesi honen ekarpen nagusia albisteen kalitatearen kontzeptu integratzailea garatu eta zeharkako metodologia sortu izana da. Horrela, hedabideen araberako neurketa gaituta, euskarri guztietako albisteen kalitatea neurtzeko metodologia aurkeztu eta egiaztatu du: Albisteen Kalitate-Eredua (*News Quality Scheme*). Gainera, euskarazko hiru euskarritako hedabide nagusien albisteen kalitatea aztertu du, sorreratik 2008ra bitartean; honako hauek, hain zuzen: 'Euskadi Irratia', 'Etb1' eta 'Euskaldunon Egunkaria' / 'Berria'.

Lehenengo eta behin, tesiaren alde teorikoak kalitateari buruzko zenbait diskurtso aurkeztu du, hainbat enpresa-eredutatik eta sistema ekonomikotatik (kapitalista eta sobietarra) eratorrita. Ondorioz, kalitatearen ezaugarri komunetan oinarritutako kontzeptua garatu du. Bigarrenik, komunikazio-arloko ikerketek kalitatearen kontzeptuari egindako ekarpenak bildu ditu tesiak. Azkenik, zenbait komunitate zientifikotan garatutako albisteen kalitatearen inguruko lanak ere euskarara ekarri ditu (Eskandinavia, Alemania, AEB eta Hego Amerika).

Denis McQuail-en teoria arau-emaitza berria oinarrituta (*Media performance in the public analysis* izenekoa), tesiak kazetaritza-jarduera aztertu du (*media performance*). Horregatik, tesi honetan aurkeztutako albisteen kalitatea neurtzeko metodologia McQuailen teoria arau-emaitzetik ondorioztatzen da (printzipioak zein dimentsioak) eta, aldi berean, gainerako alorretako kalitateari buruzko ikerketaren ezaugarri klasikoak barneratu ditu.

Ondorioz, euskarazko hiru euskarritako hedabide nagusietako albisteen kalitatearen bilakaera neurtu du: irratia ('Euskadi Irratia'), telebista ('Etb1') eta prentsa ('Euskaldunon Egunkaria' / 'Berria'), sorrera urtetik 2008ra bitartean. Gainera, azken urte horretako laginak Euskal Herrian gehien jarraitzen diren gaztelaniazko eta frantsesezko hedabideekin alderatu ditu, euskarriaren arabera. Horrela, EAEz gaitutako tokiko irratiekin ez ezik ('Euskal Irratia', 'Euskal Irratiak' eta 'France Bleu'), EAEko 'Radio Euskadi'-rekin eta Espainiako 'Cadena Ser'-ekin ere alderatu du 'Euskadi Irratia'. Era berean, 'Etb1'-eko albistegiak eta honako telebisten edukia aurrez aurre ipini du: 'Etb2', 'France 3', 'Tf1' eta 'Telecinco'. Azkenik, 'Berria' erdal egunkariekin kontrajarri du: 'Diario de Navarra', 'Diario de Noticias de Álava', 'Diario Vasco', 'El Correo Español', 'Gara' eta 'Le Journal du Pays Basque'.

Horrenbestez, tesiak bi ondorio nagusi plazaratu ditu. Alde batetik, euskarazko hedabideek zabaltzen dituzten albisteetan kalitatearen gainbehera nabarmena izan da. Are gehiago, sorrerako urteetan euskal senari hobeto erreparatzen zioten eta azken hamarkadan, ordea, albiste-hornitzaileen edukiak gainditu dira. Beste aldetik, euskarazko hedabideek erdarazkoek baino hobeto informatzen dutela egiaztatu da, hau da, euskarazko albisteak erdarazkoak baino kalitate handiagokoak direla. Hortaz, hizkuntzak eta komunitate horren senak kazetaritza lasterraren hedapenari muga argiagoak ipini ahal izan dizkiote.